ASTEKARIA | 2014ko ekainaren 13an | XVII. urtea | USURBIL | 577. zenbakia | www.noaua.com

TOKIKOM

# noaua

Erdiko orrialdeetan, Gure Esku Dago posterra

Xabier Miguel Ezkerra: "Larunbatekoak Baionan inflexio puntu bat izan behar du"

Kiki, Koko eta Moko pailazoak, ekainaren 19an frontoian



## "Ez dugu beste inor mendean hartu nahi, etorkizuna hautatu ez besterik"


Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!
ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA
188.000 € tik
12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpin
• Etxebizitza argitsuak.
• Terraza handiak.
• Lorategidun behe solairuak.
• Primerako kalitateak.
• Diseinuzko materialak.
USURBILEN
VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia
E.:contacto@viviendaslanin.com
943 46 88 60
www.viviendaslanin.com


OGI BERRI
ARTISAU OKINAK
ORDUTEGI BERRIA:
egunero 06:00tik 21:00ra
asteburutan ere
gaueko 21:00ak arte!
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)


Hamaika
ikusteko,bizitzeko
ZUREA GURE,
GUREA ZURE
Gurean Gaur
ikusteko
www.hamaika.tv
LTD nahiz Euskaltel (11 eta 911. kanalak)

## Albistea iruditan

# Erreusarentzako ontzien banaketa

Usurbilgo Udalak indarrean jartzear duen hondakinen sortzez besteko ordainketa sistema berrirako beharrezkoak izango diren erreusarentzako ontzi grisak banatzera doaz ekaineko bigarren hamabostaldian. Herritarren bizilekura gerturatu nahian, banaketa postuak auzoetan jarriko ditu Udalak. Kiroldegian, Santuenea Auzo Elkartean edota Aginagako Eliza Zaharrean.

Herritar bakoitzak ondoen datorkion postu eta egunetan joan daiteke gris kolorekoa izango den ontzia hartzera. Norberak bere helbidea eman eta ontzia doan jasoko du trukean, egun, ordutegi eta lekuotan:

**Ekainak 20, ostirala**
18:00-20:00 Oiardo Kiroldegian.

**Ekainak 21, larunbata**
10:00-13:00 Oiardo Kiroldegian.

**Ekainak 25, asteazkena**
18:00-20:00 Santuenea 12,
auzo elkarteko lokalean.

**Ekainak 26, osteguna**
18:00-20:00 Aginagako Eliza Zaharrean.

**Ekainak 27, ostirala**
18:00-20:00 Oiardo Kiroldegian.

**Ekainak 28, larunbata**
10:00-13:00 Oiardo Kiroldegian.
Oharra: nork bere etxeko helbidea eman eta ontzi gris bat jasoko du doan.




**Nork bere etxeko helbidea eman eta ontzi gris bat jasoko du doan.**

## Laburrean

### Afari begano brasildarra ostegunean

Ekaineko bigarren osteguna, kalitatezko produktuekin eginiko otordu osasuntsua dastatzeko eguna; afari beganoa, 20:30etik aurrera Usurbilgo Gaztetxean. Oraingoan, brasildar erara prestaturikoa. Munduko futbol txapelketa ospatuko duten herrialdeko "ohiko plater goxo goxoak dastatzeko aukera borondatearen truke, animalietatik eratorritako produkturik gabe".

### Udajolaseko argibideak, osteguneko bileran

Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak antolaturiko udako aisialdi ekimenaren inguruko azalpenak, ostegun honetan, ekainaren 12an, 17:00etan Potxoenean deituriko bileran emango dituzte.

Udajolasen aurrez izena emana duten 4-12 urte arteko haurrek parte hartuko ahalko dute, uztailaren 1etik 30era.

### Udako inausketa ikastaroa, larunbatean Potxoenean

II. Sagastiak Loretan zikloa larunbat honetan amaituko da, ekainaren 14an. Aitor Etxeandia nekazaritza ingeniariak zuzenduriko udako inausketa ikastaroarekin. Saioa, larunbat goizeko 9:00etatik aurrera Potxoenean.

Informazio gehiago eta izen ematea, Alkartasuna Kooperatiban: 943 361 114 edo alkartasuna@usurbil.com

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Bea Alda, publizitatea@noaua.com.
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala
AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Idoia Torregarai

# Bihozkada bat

Prentsaurrekoa bukatu eta korrika noa kotxera. Ez da oso ondo atera eta ordenagailu aurreran jarri beharrean nago, hainbat mezu eta ohar idazteko. Euritakoa ireki dut. Gezurra dirudi ekainean gaudenik, hau eguraldi petrala! Telefonoak sakelean dar-dar egiten dit. Esan? Agerraldiko informazioa? Bai, bai, oraintxe bidaliko dizuet. Pausoa arindu behar.

Ia estropezu egin dut parean jarri zaidan mutilarekin. Bokadillo baterako dirua eskatu dit, baina ez daukat denborarik geratzeko. Ia ez diot begiratu ere, eta ziztu bizian noa semaforo berdean jarri den kalea gurutzatzera. Kaka! Berriz gorri jarri da. Mugikorrean begiratu dut ordua. Berandutzen ari zait. Uf! Atzera begiratu eta mutila ikusi dut berriro. Tabernaren aurrean jarraitzen du, bertatik pasatzen direnei jatekoa eskatuz. Guztien ezezkoa jasotzen du.

Semaforoa berde jarri da, baina ez naiz mugitu. Bihozkada bat.

Atzera egin eta mutilarengana joan naiz. Baietz, nirekin etortzeko, bokadilloa erosiko diodala. Atzetik dudala sartu gara taberna dotorera. Haragia jan nahi duela esan dit. Karta begiratu eta 6. zenbakia aukeratu du: xolomoa, piper gorria eta arraultzak dituena. Barrako aulkietan gaude, otartekoa noiz ekarriko. Ea nongoa den galdetzen diot, interesaz baino bion arteko ixiltasuna apurtzeko gehiago, deserosoa baita egoera, ezohikoa. Errumaniakoa da, Petru izena du eta urte bateko semearen argazkia erakutsi dit mobilean. Garbitzaile moduan aritu da lanean hilabete batzuk, baina orain lanik gabe geratu da. Begietara begiratuz hitz egiten gabiltza. Urdinak ditu, ederrak. Tristeak.

Bokadilloa jarri digute aurrean. Mahaian eseri eta "gracias señora" esan dit. Zorte ona izateko, nik.

Maialen Unanue | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | **Idoia Torregarai** | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | Nerea Zinkunegi

## Ika-mika

# Ez da birziklapena, erak baizik

Atez atekoa jarri zenetik hona, neure esperientzia kontatzea gustatuko litzaidake. Argi utzi nahi dut birziklapenaren alde nagoela eta hori puntualizatu ondoren hasi nahi dut idatzi hau. Zaborra eraman behar dudan gunetik 6 kilometrotara bizi naiz.

Sistema hau ezarri aurretik neure bilketa puntua 800 metrotara zegoen. Etxe guztietara ontzi marroia oparitu zaizue eta eskaileretatik edo igogailuz jaisten duzue, dena polita eta higienikoa.

Nik beste baserritarrek bezala, nire zaborra kotxean jaitsi behar dut kotxeko maletategian, umeen bizikletak, patinak, kazadora, udako toailak, janariarekin batera. Eta zer esanik ez, gainera txakurra eraman behar baduzu, odisea bat. Ulertzen dut baserri gehienetan bi kotxe edo gehiago egoten direla, lanekoa eta igandetakoa, baina nik ez dut zorte hori.

Pentsa une batez zaborra uzteko tokia ez dagoela zure bidean eta desbideratu egin behar zarela apropos. Hori hala izanik, gerta liteke, autoa eguzkitan uztea eta berriro etxera girotzaile usain gozoarekin joatea. Eta ez zaitezela igandeko arropaz edo jende aurrean lan egiteko behar duzun arroparekin joan, beti gertatzen baitira ezbehar txikiak eta grasa edo beste edozerekin zikin zaitezke. "Onena, zaborra nahi duzunean atera dezakezula".

Nire kotxean zaborra eramateko tamaina erdiko ontzi bat eskatzera joan nintzen, anti higienikoa delako eta likidoak isurtzen direlako, eta ideia normala eta guztiz koherentea iruditzen zitzaidalako. Ia lelotzat hartu ninduten, eta lehen erantzuna ontzi horietako bakoitzak 80 euro balio zituela… Hernanin doakoak dira. Bigarrena, 50 euro oparitzen zizkidatela kuboa erosteko 50? Ez al ziren 80?… Hirugarrenik, zaborrari egiten zitzaion tratamenduarengatik ordaintzen nuela. Herri guztietan bezala ez?

Neure buruari galdetzen diot… Astean hiru aldiz gutxienez 6 kilometroko gasolina gastatzen badut, beraiek baserrietatik pasatze hutsaren lana aurrezten dute eta ni ez naiz batere ondo ateratzen. "Neure kotxea zabortegia; patinak, ogitartekoak, likidoak… Imaginatzen duzue? Gasolina neure kontura, kotxe garbiketa maizago egin beharra… Eta zuei zaborra etxean aurrean biltzen. Idatzi bat zuzendu nuen udaletxera neure etxeko bidean bilketa postu bat izateko, beste batzuk badaudelako, eta erantzuna "donde vas manzanas traigo".

Donostian ontzi bat etxetik 200 metro baino urrutiago duenak, ez du zergarik ordaintzen. Birziklatzen den zaborretatik dirua irabazten da, konposta, kartoia, papera, beira saldu.

Zuek zuen zabor biltzaileak bazinate, zuen autoa zabor bilketarako baliatuz, etxe aurrean zerbitzua jasotzen duenaren prezio berdina ordainduko zenukete? Halere, birziklapenaren alde nago, baina ez formen alde.

**Victoria Molina**













# Alebinak eta infantil eskubaloi taldeak, Leioan




Guztira, 1.600 eskubaloi jokalari batu ziren Leioan. Horietatik, ehun bat, usurbildarrak.

Aurreko larunbatean, Bizkaiko udalerri honetan Askartza Claret Eskubaloi Elkarteak antolaturiko "Ander Manzanedo" Eskubaloi Txapelketan parte hartu zuten Usurbil Kirol Elkarteko neska mutilen taldeok. 1.600 jokalari guztira, ehun baino gehiago usurbildarrak. Irudiko jende guztia.

### KLUBAREN EGUNA

Usurbil K.E.-k bere eguna ospatuko du larunbat honetan, ekainaren 14an:

Egunean zehar, eskubaloi neurketak frontoian eta Oiardo Kiroldegian.

Iluntzean, herri-afaria. Otordurako txartelak, ekainaren 11ra arte salgai, Bordatxon eta Aitzagan. Prezioak; 20 eurotan helduenak, 10 eurotan gaztetxoenak.

Antolatzailea: Usurbil Kirol Elkartea.

## Ziortzako kanpaldia prestatzeko deialdia

Ekainaren 28an Peñaloscintosera (Errioxa) joateko hitzordua jarri dute Ziortza Gazte Elkartekoek, urteroko muntaketa lanetara. Desmuntaketa, abuztuaren 10ean egingo da. Egun batean zein bestean, "bertara etorri nahi duten herritar orori deialdia egiten diegu animatzeko eta azaltzeko. Izena emateko ziortzage@gmail.com helbidera idatz dezakete edo 943 361 239 telefono zenbakira deitu".

**Errifa zozketa**

Ziortza Elkartetik bideratu duten zozketako zenbaki sarituak honakoak dira:

1.saria: 1.389 zenbakia.

2.saria: 1.164 zenbakia.

3.saria: 0.094 zenbakia.

**Harremanetarako**

Sarituak, Ziortzakoekin jar daitezela harremanetan: ziortzage@gmail.com helbidean edo 943 361 239 telefono zenbakian.

## Hemeroteka

# Gu biktima hutsak izan gara, beste behin

Euskal Herritik kilometro askotara harrapatu nau albisteak. Lehenengo eta behin, nire zorionik beroenak sufrikario honetan kide izan ditudan guztiei, eta familiei. Eta ez horiei bakarrik: euskalgintzako lagun askori ere bai.

Iritsi da azkenik amesgaiztoaren bukaera nahi genukeena. Akusatuen aulkian ez gara eseriko agian, baina halaxe eduki gaituzte 2003tik gaurdaino, are estutzen gintuen soka batetik zintzilik.

Amesgaizto hau hemen bukatu edo ez, goraki adierazi behar dugu guk ez dugula delituriK egin, inolakorik ere ez. Hemen baldin bagaude eta horren luze eduki bagaituzte horrela, bestelako jokamoldeengatik izan da, bestelako blokeo eta interesengatik. Gu biktima hutsak izan gara, beste behin.

Kasu honetan aspaldi ezagutu dugu absurdoaren eremua, akusazioen aldetik (Dignidad y Justiciak abiatua gero fiskaltzak beretzat hartu izana nahiz eta hura kanpora bota), Eusko Jaurlaritzaren txostena aintzat ez hartzea. Esperpentoaren kapitulu bat gehiago. Egunkaria-ren liburu beltz honetan.

Gaur amaitu edo ez, beti gogoan izan beharko genuke 1990a, Egunkaria ilusioz beteta sortu genuen urtea, datorren urtean hain zuzen zilar ezteiak ospatuko baititugu. Zorionak, hortaz.

**Joan Mari Torrealdai, 'Egunkaria'-ko auzipetua. Berria egunkarian argitara emana, ekainaren 5ean.**








# Xabier Miguel Ezkerra: "Ekainaren 14ak

Euskal Herriko gatazkaren konponbidean duela urtebete bere ekarpena egin zuen, usurbildar bat, Xabier Miguel Ezkerra kide duen euskal iheslarien kolektiboak. Garatzen hasiak diren bide-orri bat aurkeztu zuten, gerora eragile, erakunde eta herritarrekin partekatu dutena. Aurrerantz jotzeko borondate ona aurkitu dute bidean, baina jorratzen hasi direna bide luze baten hasiera dela dio usurbildarrak, larunbaterako Baionan euskal preso eta iheslarien eskubideen alde deitua dagoen manifestazio bezpera hauetan.



Ia 39 urtez errefuxiatuta egon ondoren, apirilaren amaieran Usurbilen izan zen bisitan. Lau egun egin zituen bertan. Argazkiak ordukoak dira.

*"Neuretzat pertsonalki oso berezia izan zen. Alabarekin Usurbilen ez nintzen sekula egon"*

**Zuen ekarpena jendarteratu zenutenetik, zein izan da orain arte jorratu den bidea?**

**Xabier Miguel Ezkerra:** Hasierako bide bat, luzea izango den bide bat. Hasieratik bagenekien irtenbide posible baten ikuspegi batetik aurkezten genuen ekarpen bat zela, borondate politiko batekin erraz aurrera egiten ahal zuela. Baina estatuen aldetik prozesu demokratiko batera heltzeko borondate politikoa ikusten ez genuenez, ondorioz sozializatu beharko genuela eragile guztiekin eta herriarekin. Miarritzeko iazko ekainaren 15az geroztik, gure bide-orria partekatzeko eragile desberdinekin biltzen hasi ginen: ordezkari politiko, sindikatu eta erakundeekin. Tresna on bat bezala ikusten zuten gure bide-orria. Baina borondate politiko hori ez dagoenez, inboluzio baten aurrean aurkitzen garenez, beraiek eta gu jabetzen ginen, herri bezala erantzun beharko genuela. Gure bide-orria horrela ikusi behar da, zenbait eragileekin garatu eta sozializatu beharrekoa, lehentasunezko erantzunak emanez. Orain arte, ezezkoa aurrez ikusi dugun inor ez dugu izan. Baiezkotik, borondatearekin defendatzera oraindik bide bat egin behar dugu.

**Aipatzen duzun inboluzio egoeraren aurrean, eta hauteskundeak ospatu berri diren honetan, Europak zerbaitetan lagundu dezake?**

Europan ikuspegi nahiko arrazionala dute. Laguntzeko prest egongo zen, baina garbi izan behar duguna, Europarentzat, edonorentzat, Euskal Herrian euskal herritarrek, guk ez badugu ikusten Espainiak benetako arazoa duela Euskal Herrian, kanpoan ez dute egingo guk egiten ez duguna. Prest daude laguntzeko, baina nolabait laguntza hori guk eskatu behar dugu. Noizbehinka munduko hedabideetan ateratzen diren artikuluak irakurtzen badituzue, jabetzen dira kanpoan zer gertatzen ari den hemen. Laguntzeko prest egongo ziren. Baina ez dute beraiek egingo guk egiten ez duguna. Hori ziur, inoiz. Europarentzat bi herriekin arazo bat duela ikusten duenean, orduan bilakatuko da arazoa eurentzat ere. Orduan laguntzen saiatuko da edo arrazionalizatzen. Baina gakoa guk dugu.

**Iheslarion egoera konpontzeaz ari garenean, bizi-baldintza gogorretan den kolektibo anitz eta sakabanatuaz ari gara?**

Oso anitza eta konplexua bai ibilbidean, bai egoeretan, bai ihesaldiaren arrazoiengatik. Horrek norbere bizitza eta inguru guztikoena zailtzen du. Beste herrialde batzuetan jarraipen judiziala dutenak daude, ezkutuan bizi behar dutenak. Bizitza aurrera ateratzea egunero zaila da. Esaten dugunean presoak ekarri behar ditugula, egoera larrian ditugun kideak, esan nahi du ere bitartean erantzuna eman behar diogula bai Ameriketan daudenei, prekarietatean, segurtasun sozialik gabe, adinean aurrera doazen kideei, osasun arazo larriak dituztenei, deportatuei… Linbo batean bizi dira. Hori bizi egin behar da eta horri guztiari erantzun arrazional bat eman behar zaio. Eta gu jabetzen gara hitz egiten dugunean eragileekin, alderdiekin, zientzia fikziozko film bat ikusten ari balira bezala begiratzen gaituztela. Gero datuak emanez, errealitate gordinaz, latzaz jabetzen dira. Kide guztion egoerei konponbide bat eman aurretik, tartean irtenbide batzuk eman behar zaizkie eta horretarako etxeko eta munduko erakundeetara jo behar da.

## Iheslarien aurkako euroaginduak bukatzeko eskaera

**Manifestazioa larunbatean Baionan, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde. "Ni ere banoa" izeneko atarian, atxikimendu anitz jasotzen ari da mobilizazioa. Zergatik joan behar genuke Baionara?**

Biziki garrantzitsua da, hori ez baita beste manifestazio bat, konpromiso bat garatzen hasteko baizik. Horretan parte hartzen dute hitzordua deitu duten eragileek eta konpromisoak hartzen dituzte, exigentzia batzuk ere egitearekin batera: iheslarien aurkako euroaginduak bukatzea, espultsaturiko iheslarien itzulera.... Ekainaren 14an, Baionak beste inflexio puntu bat izan behar du. Hilaren 14an gure esku dago prozesu hau aurrera eramatea eta ondorioekin nolabait bukatzea.

# k beste inflexio puntu bat izan behar du”

Ia 40 urteren ostean, egun batzuetarako sorterrira itzuli zen Xabier Miguel Ezkerra, apirila amaieran. Herritarren aldetik jasotako harrerarekin oso hunkituta sentitu zen.



“Oraindik hala ibili beharko gara, maletekin. Hemen nago, baina oraindik ez naiz etorri”.

Argazkia: usurbileginez.com

> *“Oraindik beste kideak ekarri behar ditugu eta horretarako lanean jarraitu behar dugu”*

**Sorterriko plazetara itzultzeko erabakia hartu zenuten martxoan. Hainbeste denbora pasa eta gero, zuretzat zer nolako etorrera izan zen Usurbilera?**

**Xabier Miguel Ezkerra:** Martxoan hartu genuen erabaki garrantzitsua. Gure bide-orria bultzatzeko eta beste kideak etxera ekartzeko lagungarria izango zelakoan eman genuen pauso hori. Ni, nola sentitu nintzen, ia 39 urteren ostean Usurbila itzulita? Berezia da adieraztea. Iristean, sentsazioak korapilatzen dira. Benetan zer bizi duzun geroago hasten zara ikusten. Herriaren harrera oso hunkigarria izan zen neuretzat eta ondokoentzat. Neuretzat pertsonalki oso berezia. Alabarekin Usurbilen ez nintzen sekula egon. Herritarren erdia baino gehiago ez nuen ezagutzen. Ez nik beraiek ezta beraiek ni ere. Jende bat etortzea, goxotasun horrekin ongi etorria emanez, eta esatea ez didazu ezagutuko, ni halakoen seme edo alaba naiz, ukitzen du. Lehenbizi kokatu egin behar zara, baina hori oso hunkigarria izan zen. Lau egun zoragarri izan ziren. Hor geratzeko gogoz joan nintzen. Usurbil bisitatzeko denborarik ez zidan eman.

**“Hemen nago, baina oraindik ez naiz etorri” zurea da esaldia, Usurbila itzuli zinenekoa. Bizi duzun egoera ederki deskribatzen duena.**

Esan nuen, gure erabakia ez zela ezeren amaiera, baizik gure bide-orriaren garapenaren hasiera. Usurbilen nengoela pauso hori eman dugula, jada ibiliko garela Euskal Herri osoan baina oraindik ez dugula bukatu, oraindik ezin dugula instalatu gure txokoan, gure herrian.

Oraindik hala ibili beharko gara, maletekin. Horregatik nioen, hemen nago, baina oraindik ez naiz etorri eta esan nuen ere, guk aditz hori beste aditz batekin, ekarri aditzarekin deklinatzen dugula. Oraindik beste kideak ekarri behar ditugula eta horretarako lanean jarraitu behar dugula.

## Autobusa larunbatean, Baionako manifestaziora

Giza eskubideak, konponbidea, bakea *lemapean* 24 eragile desberdinek euskal preso eta iheslarien eskubideen alde, larunbat honetan, ekainaren 14an, Baionan antolatu duten manifestaziora joateko autobus zerbitzua izango da Usurbildik. Autobuserako izena aurrez eman beharra dago, Txiribogan, Aitzagan eta Bordatxon jarri dituzten zerrendetan. Presoen sakabanatzea eta iheslarien aurkako euroaginduak amaitzea, presoen hurbilketa, gaixo daudenak askatzea edota 80. hamarkadan beste lurralde batzuetara espultsaturiko iheslarien itzulera eskatuko da, larunbat arratsaldeko 16:00etatik aurrera Baionan.

### ATXIKIMENDU ANITZ

Babes zabala jaso du larunbateko manifestazioak. Ia alderdi guztietako auzapez, diputatu eta senatariena. Departamendu mailako ordezkariena: Silviane Alaux eta Colette Capdevielle diputatu sozialistena, Jean Lasalle MODEM-eko diputatuarena, Baiona, Biarritz, Angelu, Donibane-Lohitzune, Hendaia, Hiriburu, Uztaritze, Maule, Baigorri edota Muskildiko UMP, EH Bai edota sozialistak diren auzapezena ere.

### EKAINAK 14 LARUNBATA

**14:30** Autobusa Mikel Laboa plaza ondoko errotondatik Baionara. Izen ematea: aurrez, Bordatxon, Aitzagan eta Txiribogan.

**16:00** Manifestazioa Baionan, Laugatik abiatuta, "Giza eskubideak, bakea, konponbidea" lemapean. Informazio gehiago: nierebanoa.org edo herriaduguarnas.org




**Autobusa 14:30ean abiatuko da Mikel Laboa plazatik.**

# Punta-puntako sukaldariak, Santixabeletako NOAUA!ko terrazan





Josu Lerones, Manu Piñeiro eta Xabi Tello, terrazarako sukaldatuko duten artistak.

Iaz bezala, datozen Santixabeletan hartu tarte bat eta gerturatu NOAUA! Kultur Elkarteak Zubiaurrenea kalean (Orbeldi Aseguruak eta Usurbil Optika artean) egokituko duen terrazara. Usurbildarren topagune berezia, zabalik izango da hiru egunez, herriko festetan; uztailaren 4tik 6ra, arratsaldetik gauerdira arte. Berrikuntzekin aurtengoan.

Punta-puntako herriko hiru sukaldarik prestaturiko menu berezi eta goxo askoak dastatzeko aukera egongo baita jaietako asteburuan; Karlos Argiñanoren ostalaritza eskolan sukaldari buru den **Manu Piñeiro**, herriko tabernetako hainbat jaki prestatu dituen **Josu Lerones** eta Lanbide Hastapenean irakasle lanetan dabilen **Xabi Tello**renak hain zuzen. Hirukoteak prestatuko dituen plater bereziok zeintzuk izango diren ez dugu ezagutzera emango oraindik.

Baduzue beraz terrazara hurbiltzeko aitzakia. Eta ez bakarra, gune bizia izango baita aurtengoa. Zehaztasun gehiago datozen asteotan.

# Beste 20 betetzeko gogotsu

Aurrekoa ospakizun astea izan zen Aitzaga Elkartekoentzat. 20 urte bete zituen eta, ekainaren 5ean. Kartel eta pegatina historikoen erakusketarekin batera, Euskal bideaz eta Via Catalanaz hitzaldia antolatu zuten Aitzaga kideek. Sortuko presidente Hasier Arraiz eta Catalunyako CUP mugimenduko kide eta parlamentari David Fernandez etorri ziren Sutegira. Biharamunean egin ziren ospakizun ekitaldi zentralak, Askatasuna plazan. Omenaldi ukitu nabarmena izan zuen ekitaldiak. Elkarteari eginiko ekarpenagatik merezitako errekonozimendua eta zorionak jaso baitzituen Aitzagaren sortzaileetako batek, Jexux Mari Errekondok. Segidan, herriko dantzari helduen taldeko kideen emanaldiaz gozatu ahal izan zen.




Jexux Mari Errekondo, ikur bat jasotzen.

**Presoentzako kamisetak**

Herritik urrun jarraitzen duten hiru herritarrentzako kamiseta bana diseinatu dituzte Alejandro Tapiak, Karlos Zabala "Arrastaluk" eta Jose Luis Zumetak. Kamisetok senideei banatu zitzaizkien.

## Udal diru-laguntzak, deialdi berriak

Ekainaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak argitara eman zituen, amaitzear dugun ikasturte honetan zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin edota euskara ikasten aritu direnentzako Usurbilgo Udalaren diru-laguntza deialdien oinarriak. Euskarakoak jasotzeko eskabideak, ekainaren 25etik uztailaren 9ra aurkeztu ahalko dira. Ekainaren 16tik 27ra eskatu ahalko dira aisialdikoak. Matrikularen erdia ordaintzeko adina laguntza jasotzeko aukera izango dute begirale edo zuzendari titulua ateratzeko ikastaroren bat egin duten usurbildarrek. 250 eurora arteko laguntza jaso ahalko dute begirale ikastaroa egin dutenek, 150 eurora arte aisialdiko zuzendari izateko prestakuntza saioak jaso dituztenek. Ikastaroa euskaraz egitea, eskatzailea usurbildarra izatea edota ikastaroaren alderdi teorikoa gainditu izana, ezinbesteko baldintza izango dira diru-laguntzok eskatzerakoan.

## Parekidetasun Kontseiluaren deialdiak

"Gorputz moreak, gorputz askeak!" lemapean bi ekimen antolatu ditu:

**Ekainak 17, asteartea**

19:00 Hitzaldia Potxoenean: "Gure gorputza, gure erabakia".
Hizlariak: Elena Jimenez sexu aholkularia eta Bilgune Feministako kide Saioa Iraola.
Edukia: "Kanpotik diote zer esan eta zer egin".

**Ekainak 19, osteguna**

22:00 Bertso-saio musikatua Sutegiko auditorioa: "Ez da kasualitatea".
Bertsolariak: Rosi Lazkano, Odei Barroso, Uxue Alberdi, Nerea Elustondo eta Ainhoa Agirreazaldegi.
Gai-jartzailea: Ainhoa Aranburu.
Musikariak: Eneko Sierra eta Ixak Arruti.
Sarrera: doan.

Antolatzailea: Parekidetasun Kontseilua.






# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNEAN AURRERA EGITEKO GIPUZKOAKO HERRIEN %70a ~~EZ DA~~ ARI DA LANEAN.

* 10.000 biztanle baino gutxiagoko 40 herri, kolektiboki lan egiten ari dira tokiko berdintasun politikak garatzeko, Berdinbidean programaren barruan.

** 21 herri parte hartzen ari dira Gipuzkoako Berdintasuneko Teknikarien Sarean.

*** 3 herriri eta mankomunitate bati lagundu zaie tokiko berdintasuneko teknikariak kontratatzen: Azkoitia, Tolosa, Ordizia eta Urola Garaia (Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga).

**** 16 udaletako eta mankomunitate bateko tokiko berdintasuneko 30 proiektu garatzen laguntzea, diru laguntzen urteko deialdiaren barruan.

Gipuzkoa BERRIA

berdintasuna** egiteko asko

www.berdintasuna.net



noaua

# Gure Esku Dago

## 2014ko ekainaren 8an. Usurbildarrak, Uharte-Arakilen



Argazkia: Joseba Larratxe

# “Segi dezagun lanean, elkarri lotuta”



Usurbildarrez bete zen Uharte-Arakil. 663 atxikimendurekin, 90. kilometroa Usurbilgo jendearekin osatua izan zen.

Haur, gazte, ez hain gazte eta heldu… mila irrifar ikusi genituen igandean gure kilometroan. Ehun milaka irrifar 123 km-etan… izan ere, halakoa behar zuen Ekainaren 8ak. Ez besterik. Erabakitze eskubidearen aldeko festa egitea zen erronka, oraindik ere hotz xamar sentitzen dugun eskubidea. Baina ezbairik gabe eguna berotzea lortu genuen (ez eguzkiagatik soilik) eta nola gainera!

Urduri ginen oso, antzematen zitzaigun. Baina gure herriak primeran erantzun zion hasieratik deialdiari eta igandean eredugarri baina gehiago izan zineten. Ezkerrera mesedez, orain eskuinerago… batek baino gehiagok pentsatu zuen: “kristorena ematen ari dira antolakuntzako hauek!”.

Historia egin dugu berriro ere. Ezin dugu gehiago eskatu… Edo bai. Segi dezagun lanean elkarri lotuta, lotzen gaituen katea izan dadin askatuko gaituena.

Zorionak guztioi. Zorionak euskal herritarroi dagokigun erabakitzeko eskubidea modu aktiboan babesteagatik eta giza kate historikoan parte hartu duzuelako. Eta zorionak, Euskal Herriaren historiaren atal ederra idazten lagundu duzuelako. Bejondeizuela!

**Usurbilgo Gure Esku Dago**



**Aritz Gorriti**

## Herria, eskua emanda

Alaia, hunkigarria, koloretsua, anitza, pozgarria... Adjektibo guztiok eta gehiago erantsi ahalko dira aurrerantzean, igandeko giza-kateaz oroituko garen aldiro. Gure oroitzapenen kutxatxoan ezin hobeto gordeko dugu 2014ko ekainaren 8a. Haur, gazte, heldu, koadrila, familia, talde, norbanako, bikote, kolektibo... 900 usurbildar baino gehiago eskutik helduta, kilometro luze batez bat eginda, erabakitze eskubidearen inguruan. Bereizi ordez, bilduko gintuen halako ekimen baten gosea eta egarria bazen. Horren leku-ko, igandean Uharte-Arakilera joandako herritarren aurpegiak. Oso adierazgarriak; irri batekin, pozik, hunkituak oso. Eta eskuak, argazkietako sinbolo nagusiak. Eskuak, elkarri lotzeko, batzeko, aldarrikatzeko. Ikustera ohitu gabe gauden argazki historikoa ekainaren 8koa; herri baten irudia Durangotik Iruñearako aldarrikapen kate luzearen 90. kilometroan. Adostasun gune bat, elkargune bat sortu du Gure Esku Dago mugimenduak.

Baita Usurbilen ere. Igandekoa abiapuntua izan zen, orain segida dator. Zorionak Gure Esku Dago! Zorionak Usurbil!



**Imanol Ubeda**

## Moduak eta moduak

Baten batek esango du dena ez dagoela gure esku. Alperrik gabiltzala. Auskalo. Denborak esango du hori. 30 urte barru zer izango da gutaz? Nola epaituko gaituzte gure ondorengoek? Zer esango ote dute gutaz gure bilobek?

Ahalik eta objetiboen jarrita, honela laburbilduko du historiak: “Durango eta Iruñea lotu zituzten, eskuetatik helduta”. Ez dut uste urteen poderioz irudi horrek indarrik galduko duenik. Gerora, ba nork daki zer pasako den. Gu ere tronpatuko gara, eta seguru gauza askotan kale egingo dugula. Ez gara gure aurrekoak baino hobeak. Eta gainera, hariari berriro helduz, neurri batean egia da: ez dago dena gure esku. Baina aukerarik sortzeko, lehenbizi borondatea agertu beharra dago. Eta borondate hori agertzeko moduak eta moduak daude. Nondik gatozen ikusita, zer esango dizuet ba, indar izugarria duela Durango eta Iruñea eskuz esku lotzeak.

Duela ez hainbeste, jendetza ikusi nuen dantzan Zubietan. Orain, tximiniarik ez da Zubietan ageri. Akaso ez da hain ejenplu txarra, ala bai?

# Irudi zaparrada, sare sozialetan


Xingola


Lurdes Hueta


Ibai Arrieta



Gari Udabe

Argazki ugari aurkitu daitezke Facebook, Twitter eta Instagram sare sozialetan. Behekoa, eskubitara, New York hirian ateratakoa da. Erdian pankartari heltzen ageri da Gari Udabe. Facebooken ipini zuen argazkia.



Giza-katea eta ondorengo egunpasa alaitzen aritu ziren txistulariak.

## Usurbildarren kilometroa, bideo batean



NOAUA! TB atalean, noaua.com orrian, hainbat bideo eskegi ditugu. QR honekin 90. kilometroari dagokion bideoa ikus ahal izango duzue.








Parekidetasun Kontseilua

# Gorputz moreak, gorputz askeak!

**USURBIL**
2014-06-13

Iazko abenduaren 20an Estatuko ministro kontseiluak gaur egun indarrean dagoen abortu legearen erreformarako aurreproiektua onartu zuen; "Ernalduaren bizitza eta haurdun den emakumearen eskubideak babesteko Lege organikoa" hain zuzen ere.

Gaur egun indarrean den legeak abortatzeko epeen sistema jasotzen du, hau da, hamalaugarren astera arte baldintzarik gabe abortatu daiteke eta hortik aurrera baldintzak zehazten dira. Lege proiektua 1985ko legea baino atzerakoiagoa da eta mugimendu feministak urteetan lortutako eskubideak pikutara bidali nahi ditu. Egitasmoak epeen sistema indargabetu eta abortatzeko aukera bi kasuetara murrizten du: "beharrezkoa" denean, "amaren gorputz-osasuna edo osasun psikikoa arriskuan egoteagatik", edo haurdunaldia bortxaketa baten ondorioa denean. Azken kasu honetan, emakumeak gertaera salatu behar du eta lehen 12 hilabeteetan abortatu dezake soilik. Emakumearentzat haurdunaldiak "arrisku larria" badakarkio 22. astea arte abortatu ahal izango luke, baina arriskua zentro desberdinetako bi psikiatrek baieztatu beharko dute. Umekiaren malformazioak ez lirateke, lege-aurreproiektu honen arabera, abortua egiteko zergati bat. Ezarritako irizpideetatik kanpo abortuak egiten dituzten medikuentzat zigorrak ere ezartzen ditu erreformak: urtebete eta hiru urte arteko kartzela-zigorra, emakumearen baiezkoarekin egindako abortuen kasuan; eta 4 eta 8 urte arteko espetxe-zigorra, mehatxupean edo iruzurrean oinarrituta egiten bada.

Baina lege hau aurrera ateratzen bada, zer pasako da praktikan? Zein da mugimendu feministak egiten duen irakurketa? Zer egin dezakegu? Galdera hauen inguruko hausnarketa egin ahal izateko eta beste zalantza asko argitzeko "Gure gorputza, gure erabakia" izeneko hitzaldia antolatu dugu parekidetasun kontseilutik. Elena Jimenez udal sexu aholkularia eta Saioa Iraola Bilgune Feministako partaidea izango dira gure artean ekainaren 17an, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean.

Gorputzen gaineko kontrola emakumeon ugalketaren eta gorputzen gaineko kontrola sistema kapitalista eta patriarkalaren funtzioetako bat izan da betidanik, emakumea eremu erreproduktibora mugatzeak sistema beraren onura dakarrelako eta kapital berari egiten diolako mesede. Kontrolperako mekanismoak ugariak dira; gorputzaren edertasunaren inguruko estereotipoak betetzearen derrigortasuna, gorputzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidearen ukapenak, osasuntsuak behar dute izan, zuriak etab.

Bestetik, emakumezkoen gorputzen gaineko zapalketaz gain, genero-sexu sistemaren baitan eraikia izan den "emakume-gizon" binomiotik aldentzen diren gorputzak patologizatuak, zigortuak eta deslegitimizatuak izaten jarraitzen dute.

Nahi dugun identitatea eta gorputza izateko eskubidea aldarrikatu nahi dugu, matxismoaren eskutik datozen eraso guzti hauek gaitzesi eta gorputz moreen aldeko aldarria egin nahi izan dugu. Gaia beste eremu batetik aztertze aldera, "Ez da kasualitatea" bertso saio musikatua antolatu dugu ekainaren 19an Sutegin, gaueko 22:00etan. Gai jartzailea Ainhoa Aranburu izango da eta bertsolariak Uxue Alberdi, Ainhoa Agirrezaldegi, Nerea Elustondo, Rosi Lazkano eta Odei Barroso. Musikariak berriz, Ixak Arruti eta Eneko Sierra izango dira. Ez da ohiko bertso saioa izango eta argi geratuko zaigu guztioi, ezer ez dela kasualitatea. Hortaz, "Gorputz moreak, gorputz askeak" zikloaren baitako ekintzotan parte hartzeko gonbita luzatzen dizuegu herritar guztioi!

# Ikasle gazteenekin abian, Zumarteko uda aurreko azken emanaldiak

Asteazken honetan, piano, saxo eta biolineko ikasle gaztetxoek Zumarteko ganbaran eskainitako emanaldiarekin abiatu dira, musika eskolak uda aurretik antolatu dituen jendaurreko azken emanaldiak. 2013-14 ikasturtea borobiltzeko hurrengo saioa, ostegun honetan bertan:



Udarregi ikastolan, Sutegin eta San Estebanen eskainiko dituzte saioak.

**Ekainak 12, osteguna**
18:00 Udarregi Ikastolan.
Zumarte Txiki Abesbatza eta Musika Txokoko ikasleak.

**Ekainak 16, astelehena**
19:00 Sutegin.
The Hastelehen´s, Ganbarakada, Gitarrako Taldeak, Tronpeta-Mix Taldea.

**Ekainak 17, asteartea**
19:00 San Estebango elizan: Zumarte Abesbatza, Zumarte Gazte Abesbatza eta Biolin Max-Mix Taldea.

**Ekainak 18, asteazkena**
18:30 Sutegin: Triki-pandero Taldea, Talde Instrumentalak, Piano bikoteak, Klarinete Taldea, Eskusoinu Taldea.

## Nafartarrak-en hitzaldia

**Ekainak 12, osteguna**
19:00 "Lehenengo Mundu Gerra Euskal Herrian", Sutegin. Doan. Hizlaria: Eneko Bidegain, Berriako kazetaria.

## Antzerki Txikikoen ikasturte amaiera

Oporretara joan aurretik, emanaldi bana eskainiko dute datozen bi larunbat hauetan; ekainaren 14 eta 21ean. Bi saioak, eguerdiko 12:00etatik aurrera Sutegin.

## Frontenis ikastaroa Aginagan

Aginagako San Praixku guraso elkarteak antolatu du. Ekainaren 9, 11, 16, 18, 23 eta 30ean. Ordutegia: 17:00- 18:00. Adina: HH4-LH6. Plaza mugatuak. Apuntatzeko: Ana (636531650)

# Astebete, Usurbil Cup-en izena emateko



Irailean ospatuko da Usurbil Cup Txapelketa.

Ostiral honetatik, ekainaren 13tik 20rako tartea dute 6-14 urte arteko haur eta gaztetxoek aurten iraileko lehen asteburutik azken asteburura jokatuko den txapelketan apuntatzeko. Kuota 75 eurokoa izango da. Jokalarien hiru laurdenak Usurbilgo ikastetxeetako ikasleak izan beharko dute. Argibide gehiago, Usurbil FT-k ekainaren 25erako osatuko diren taldeetako arduradunekin deituko duen guraso bileran. Bilkura ordua eta lekua, aurrerago zehaztuko dute antolatzaileek. 2013-14 ikasturte honetan, maila hauetan dauden ikasleek parte hartu ahalko dute: LH 1-2 (derrigorrez mixtoak eta sailkapenik ez da egongo): 8-12 jokalari. LH 3-4: 8-12 jokalari. LH 5-6: 8-10 jokalari. DBH 1-2: 8-10 jokalari.

**Jolas arratsaldea, ostiralean**

Usurbil Cup txapelketan izen emateko orriak, ostiral honetan, ekainaren 13an hasiko dira banatzen, Usurbil FT-k Mikel Laboa plaza bueltan antolatu duen jolas arratsaldearen baitan. Orriok Oiardo Kiroldegian ere eskuratzeko modua izango dira. Jolasetara bueltatuta, Usurbil Cup irailean ospatuko denez, kirol ekimenak utzitako hutsunea betetzeko ekimen alternatiboa antolatu dute Usurbil FT-koek, ostiral honetarako. 3 jokagune prestatu dituzte futbol taldeko kideek Mikel Laboa plazan, 18:30etatik 21:00etara. Batean, Zumetak eginiko muralaren eta Laboaren omeneko eskultura arteko eremuan, "bi porteria txiki jarrita, 3vs3-ko partida motzak antolatuko ditugu, bi ume eta guraso batekin osaturiko taldeekin. Partidak gehienez ere, 3 minututakoak izango dira edo talde batek 2 gol sartu arte. Atezainik ez da egongo eta talde bakoitzak hiru partida baino gehiago jarraian ez ditu jokatuko. Behin partida bat jokatutakoan, zerrendan jarriko dugu berriro talde hori, hurrengo txanda egokitu arte".

Beste bi jolas gune ere egokituko ditu Usurbil FT-k. Bat, eskultura ondoko birilgunean. "A un toke" txapelketa ospatuko da bertan. Bi gol nork sartu lehenago, hura irabazle. Eta ondoan, "teknikako zirkuitu bat jarriko dugu". Ekimenok adin guztietako herritarrei zuzenduak egongo dira. Joko hauetan izen ematea, arratsalde pasa hasi aurretik; 18:15etik aurrera, Mikel Laboa plazan bertan.

**Usurbil FT Eguna, ekainaren 21ean**

Larunbatez eta egun osoz. Futbolari gazteen arteko jokoak, beteranoen neurketak eta klubeko zuzendaritza, entrenatzaile eta jokalariak bilduko dituen herri-afaria antolatzen ari dira iluntzerako.

# Zubietarrak nagusitu ziren



Sasoi onean dira Zubietako errebote jokalariak. 13-5 irabazi zieten igandean, Baigorriko Zaharrer Segi taldekoei. Argazkia, neurketa horretan bertan eginikoa da. Partida, etxean jokatu zuten zubietarrek.

## Uztailean Pirinioetara, Andatzako mendizaleekin

Uztailaren 12-13an Gavarnie aldera joango dira Andatza Mendizale Elkartekoak. "Pirinioetako leku liluragarrienetako bat bisitatzera. Gavarniera joateko, istripuen asegurua izatea beharrezkoa da. Begiratu zure mendi federatu txartelean Pirinioetako aseguroaren gehiagarria duzun". Gehigarria ez duenak hainbat aukera ditu. Informazio zehatzagoa www.andatza.com web orrian.

**Uztailaren 12an eta 13an**

- Irteera Oiardo udal kiroldegitik, goizeko 6:00etan. Garraioa, autobusez.
- Non eman izena: Andatza Mendizaleen Kirol Taldeko 2095 5069 07 1068489805 kontu zenbakian (Kutxabank), uztailaren 3 baino lehen.
- Plaza mugatuak. Lehentasuna Andatza MKTkoek dute.
- Ostatua Gavarnieko Grange de Holle aterpean izango da (Pentsio erdia).
- Informazio gehiago: www.andatza.com

## 101 mendi igoeren argazki emanaldia, Patxi Azpirotzen eskutik



Patxi Azpirotz herritarrak prestaturiko proiekzioa, ekainaren 19an, 19:00etan Sutegiko aretoan. "101 igoeretako hainbat lagun" izeneko saioan, 70. hamarkada amaieraz geroztik, usurbildarrak Pirinioetan eginiko ehunetik gora mendi igoera iruditan azalduko ditu. Azpirotzek bidelagun izan dituen herritarrak erretratatuko ditu emanaldiak.

## Selekzioarekin, pozik

Aurreko larunbatean Euskadiko Txapelketan aritu ziren Ane Irazabal eta Eider Makazaga, Gipuzkoako kadete selekzioarekin jokatzen. Bigarrenak geratu ziren. Aupa neskak!



## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde-jangela, komun bat, gas naturala. 619 212 860/ 685 228 194

Pisua salgai. 90 metro karratu. Ganbara, komuna, bainugela, 3 logela, egongela eta sukaldea. 156.000€ Tel. 699 680 265.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

### Alokairuan

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Pisu bat alokairuan Atxegalden. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso eguzkitsua. 943 37 22 45.

Gela eta apartamentu bila nabil Usurbil, Orio eta Lasarte inguruan. 631 277 061

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Etxebizitza polit bat eskaintzen da erdigunean. Zuzenean nagusiarekin hitz egin. 605 752 667.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570€. 2 logela, 2 hilabeteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600€. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

"Logela bat alokagai. 250 euro+gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berritua, 2 logela. Urtarriletik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurrera-tuak. 630€

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

## MOTORRA

### salmenta, garajeak

Garaje itxia salgai. 20 metro karratukoa. Kale Nagusia, 2-4-6an. 649895858.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa. Telefono zenbakia: 667984083

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilarena ere. Lan prenbentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziekin. Tel. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest: LHn ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta ingurumena. DBH eta Batxillergoan ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Erizain laguntzaile bat. Sukalde eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixoak edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriarekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularrak eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzear eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrak ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordutegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969(Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonei erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago.Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzear eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu



**Zorionak Aner!**

Ekainaren 16an urte bat beteko duzu.

Muxu asko etxekoen partez, ondo pasa eguna eta ederki ospatuko dugu.

### Heriotzak

**José Martínez Torres**

76 urterekin hil zen ekainaren 3an, Usurbilen



klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperiantziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2.mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

## Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzorduak astelehenetan 18:00-20:00)

## BESTELAKOAK

Poltsa bat utzi dut Errekatxiki pasealekuan. Norbaitek aurkitzen badu, Noaua!ko bulegora eraman.

Pultsera bat galdu nuen ikastola eta kiroldegi artean, zilar kolorekoa eta bi hartzatxorekin. Aurkitu duenari bueltatzea eskertuko nioke 607 168 352 zenbakira deituaz.

Txapeldun jertse berdea galdu genuen ostiralean. Frontoi eta dema plaza artean. Arratsaldeko 7etatik 9ak bitartean. On The Go du aurreko aldean jarrita. Noauara ekartzea eskertuko genuke.

Urte eta erdiko ume batentzako, sendo samarra den kotxe silla bat behar dugu. 626 728 463

Kotxe sila bat erosiko litzake urte eta erdiko haur batentzat. Sendo, fuertea izan dadila. 626 728 463.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40 (Aitor).

Oxelo markako patinete bat galdu dut. Beltza eta arrosa. Askatasuna plazan. Aurkitzen duenak Patrira eraman, edo deitu 943 507 230.

Zaldi-terapia egiteko, egokitutako lokal bat, landa eremu bat edo lursail bat alokatu nahiko genuke proiektu bat aurrera ateratzeko. Igor Aizpurua. Tel. 606 525 707.

Niki txuri manga luze bat galdu dugu Erreka Txiki inguruan. Katu baten marrazkia eta perlatxoak ditu. Aurkitu baduzu, deitu 943 37 04 03 telefono zenbakira. .

Gidari arduratsu bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzekin, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Valentziako mandarina ekologikoak salgai. 1€ kiloa. Bitartekaririk gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu.Miren:656742048; Alaitz:658724075

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko sua salgai. Bi urte ditu eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

## TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

# Telefono interesgarriak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Eusko Tren | 943 470 976 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 | LurraldeBus | 943 000 117 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Anbulategia | 943 362 013 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Oa botika | 943 376 076 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Iturralde botika | 943 363 395 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | DYA | 943 464 622 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Emergentziak | 112 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| KZgunea | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Etumeta AEK Euskaltegia | 607 609 379 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | BBVA | 943 377 155 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 | Telefonica | 1004 |
| NOAUA! Kultur Elkartea | 943 360 321 | Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak *ekainak 12 - ekainak 22*

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | **12** | ORUE | Jaizkibel 2. Lasarte |
| **Ostirala** | **13** | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32 Lasarte |
| **Larunbata** | **14** | ORUE | Jaizkibel 2. Lasarte |
| **Igandea** | **15** | ORUE | Jaizkibel 2. Lasarte |
| **Astelehena** | **16** | RODRIGUEZ | K. Nagusia 42 Lasarte |
| **Asteartea** | **17** | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Asteazkena** | **18** | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |
| **Osteguna** | **19** | URBISTONDO | San Franzisko 1 Lasarte |
| **Ostirala** | **20** | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte |
| **Larunbata** | **21** | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32 Lasarte |
| **Igandea** | **22** | ORUE | Jaizkibel 2. Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8
Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

# Agenda ekaina

## 13 ostirala

- **LH-koentzako kirol ekimena, Usurbil FT-k antolatuta.** Mikel Laboa plaza 18:00etan.

## 14 larunbata

- **Usurbil Kirol Elkartearen Eguna** (15 or).
- **Antzerki Txiki Taldearen ikasturte amaierako emanaldia** 12:00 Sutegin.

## 16 astelehena

- **Zumarte Musika Eskolako ikasleen ikasturte amaierako kontzertuak.** 19:00 Emanaldia Sutegin: The Hastelehen´s, Ganbarakada, Gitarrako Taldeak, Tronpeta-Mix Taldea.

## Kiki, Koko eta Moko pailazoak, ekainaren 19an frontoian

Arratsaldeko 17:00etatik aurrera frontoian. "Hainbat dantza bikoteka, borobilean, trena kalejira... Abesti ugari: Kiki, Koko eta Moko pailazoek sortuak denak. Emankizun parte-hartzaileak, umeak mozorrotuta: interpretatzen, dantzan eta publikoaren aurrean jolasean. Joko ikusgarri eta dibertituak, inplikaraziko zaituztenak. Eta hainbat parte-hartze mota, publiko osoa barne. Hori guztia Kiki, Koko eta Moko pailazoek gidatuta; lortzen duen emankizuna: ikustekoa!, dibertitua, erakargarria eta distiratsua", NOAUA! Kultur Elkarteak, Plis, Plas, Txalo eta Jolas ekimenaren baitan antolaturiko saioa. Ekainaren 19ko saiorako sarrera, doan.



**Saioa arratsaldeko 17:00etan hasiko da. Sarrera doan izango da.**

## 6-10 bertso artean idatzi eta parte hartu Santixabeletako txapelketan

Interesdunek uztailaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dituzte XXXVIII. Bertsopaper Lehiaketarako lanak, Usurbilgo Udal erregistroan. Ekimenean parte hartzeko baldintzak, aurreko urteetakoak dira:

-Epea: uztailak 1, asteartea.
-Usurbildarra izatea.
-6-10 bertso artean idaztea.
-Gaia librea.
-Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.
-Lanak helbide honetara bidali: XXXVIII. Bertsopaper Lehiaketa, Joxe Martin Sagardia Enparantza, 20170 Usurbil.

**Epaimahaikoen erabakia, uztailaren 5ean**
Parte hartzaileen artean, epaimahaiak hautaturiko lan saritua zein den, Santixabeletan emango dute ezagutzera. Aurtengoan, uztailaren 5ean, larunbat gauez frontoian ospatuko den bertso-saioaren amaieran.

**Helduen danborradako entsegu saioak**
Datozen asteotan, astearte eta ostegunero bilduko dira, 20:00-21:00 artean Agerialden. Ordutegi eta egun horietan Agerialdera agertu eta jaietako danborradan parte hartzeko izena eman dezakezue.

## Datozenak

### Kalezarko San Joanak, ekainaren 20tik aurrera

**Ekainak 20, ostirala: jaien hasiera**
18:00 Buruhandiak. 19:00 Auzotarren arteko jokoak. 23:30 Kontzertuak: The Hastelehen´s, Zurraia, Izeberg, Laket.

**Ekainak 21, larunbata: Oilasko Biltzaileen Eguna**
09:00 Oilasko biltzaile txikien irteera. 14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria. Tiketak Kaffa kafetegian (ekainaren 13tik 18ra). Beste urteetan bezala bazkaltzeko tresnak (edalontziak, platerak...) etxetik ekarri behar dira. 16:00 Musa (izen ematea 15:30ean itxiko da). 18:00 Herriko dantzariak. Ondoren, Buruhandiak. 00:00 DJ Gude.

**Ekainak 22, igandea: Umeen Eguna**
10:00 XII. Ume krosa. 11:30 Jolasak. 16:30 Tailerrak. 18:00 Txokolatada. Ondoren, buruhandiak. 19:00 DJ Burunda.

**Ekainak 23, astelehena**
15:00 San Juan eskearen irteera. 22:00 San Juan sua. Ondoren, eskearen jarraipena.

**Ekainak 24, asteartea: San Juan Eguna**
11:30 Meza Nagusia. Ondoren, toka. 13:00 Gorritiren Showa. 17:00 Buruhandiak. 19:00 Soka Dantza. Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa Saizar sagardotegiaren eskutik.











KIKI KOKO MOKO
Kiki, koko eta Moko
pailazoak
Ekainak 19, osteguna
17:00h frontoian
Usurbilgo Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
www.kikikokomoko.com

# Edertu zaitez!
















